



Universidad
del País Vasco


Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

Practicum

Batzordeetako funtzioak eta irizpideak

Haur, Lehen eta Gizarte Hezkuntzako Graduak



PRACTICUM BATZORDEAK

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

Dokumentu hau Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordearen Arautegiarekin bat eginez egiten da (EHAA, 2011ko apirilaren 11). Arau horrek xedatzen du Kalitate Batzordearen baitan Laguntza Batzordeak sor daitezkeela, izaera kontsultatiboa dutenak (5. artikulua), eta horien artean daude Praktikum Batzordeak, tituluen jarraipena, ebaluazioa eta hobekuntza egiteko eginkizun espezifikoak dituztenak.

Testuinguru arautzaile honetan, eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntza Graduetako kanpoko praktikek duten garrantzi pedagogikoa kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da Praktikum Batzordearen eginkizunak, irizpideak eta jardunbideak zehaztea. Era berean, erreferentzia gisa ezartzen da 3 ECTS = 75 dedikazio ordu, batzordearen lanaren antolaketa eta eginkizunen balorazioa orientatzeko.

1. Practicumeko batzordeko kideen eginkizunak

Rudeaketari lotutako funtzioak:

- Praktiken egutegia onartzea.
- Praktikak egiteko dauden entitateak aztertzea, hitzarmen berriak bilatzea, eta ikasleek dekanordearekin eta fakultateko arloko arduradunarekin batera egiten dituzten entitate-proposamen guztiak berrikustea.¹
- Entitateak bisitatzera joan.¹
- Ebaluazio, azterketa eta hobekuntza ekintzen galdetegiak diseinatzea.
- Ikasturtean zehar izandako gorabeherak konpontzea. Batzordekide bakoitza arduratuko da egon daitezkeen gorabeherak konpontzeaz; hala ere, gainerako ikaskideei eta dekanoordeari laguntza eskatuko die.

¹ Gizarte Hezkuntzako Practicum Batzordeari zuzendua.

- Practicumaren urteko txostena eta aktak (txandakakoa) egiten laguntzea.
- Webgunearen egitura berrikustea, eta edukia ematea, ikasleentzat eskuragarria, gardena eta ulergarria izan dadin.
- eGelapi-a osatzen laguntzea eta dauden dokumentuak berrikustea.

Funtzio akademikoak:

- eGelapin Practicum irakasgaiaren arduraduna izango da ikuspegi akademikotik.
- Araudia, gidak eta txantiloak berrikustea eta eguneratzea (itzulpenak, formatua, etab.)
- Giden eranskinak berrikustea eta doitzea.
- Sailek, ikasleen zuzendariek edo defentsa-epaimahaiek prozesuan izan ditzaketen arazoak jasotzea, eta, ahal den neurrian, araudiarekin bat datorren erantzuna ematea.
- Plagioaren jarraipenarekin eta detekzioarekin lotutako zereginak.

Prestakuntza funtzioa:

- Irakasleentzako prestakuntza-jarduerak diseinatu, abiarazi eta ebaluatzea: ebaluazio-gaiak, tutoretza-gaiak, administrazio-gaiak.
- Ikasleentzako prestakuntza-jarduerak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea (ebidentziak jasotzea eta gidan sartzea).
- Irakasleei eta entitateei zuzendutako prestakuntza jarduerak diseinatu, abiarazi eta ebaluatzea.
- Hitzaldi eta formazio ikastaroen berri ematea, Fakultatearen Webgunean agertzen den formularioaren bidez:

<https://www.ehu.eus/eu/web/forms/shared/-/form/37362649>

2. Batzordekide izateko irizpideak

- Gutxienez graduan 2 urteko irakaskuntza esperientzia izatea.
- Batzordekide izateko gutxienez 2 urteko konpromisoa hartzea.

Kide-aldaketak akta bidez jakinaraziko dira beti. Dagokion sailak aktan bidaliko du kide berriaren aldaketa edo izena, eta fakultateko juntatik pasatu beharko da.